

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2E24 Gu baino hobeto dagoena, tunante galanta.

Maila: A2

Helburua: Gauzen deskribapen xumeak egitea.

Funtzioa: Gauzak deskribatzea.

Azken ekintza: Objektu batzuk zerez eginda dauden adieraztea.

Adierazpide linguistikoak:

- Zerez, zerezko.

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Izozkiaaak!



Jarri talde txikitan eta komentatu puntu hauek:

- Txikitan hondartzara joaten zinenean egoten al zen izozki-banatzailea?
- Zer saltzen zuen?
- Zer esaten zuen?
- Beste nonbait ere egoten al zen?
- ...

Ni joaten nintzen hondartzan saltzaile bat zegoen beltzaran-beltzarana, eta kristoren pisua eramaten zuen...

2 - ENTZUN BITARTEAN

2.1 Zuk zer izozki nahi duzu?



Entzun audioa eta lagunekin adostu erantzunak.

Nolako eguraldia egiten du? Ona, eguzki ederra.

Nolako izozkiak aukeratu dituzte? Txokolatezkoa eta almendraduna.

Zein da Josuk botatzen duen azken madarikazioa? Kaka zaharra.

2.2 Nik txokolatezkoa.



Entzun audioa berriro.

Zergatik aprobetxatu behar dute? Iaz ez zirelako joan. Euri dezente egin zuen; ez zegoen girorik hondartzarako.

Nork eta zenbat ordaindu ditu izozkiak? Junek, 4,50 €.

Zergatik nahiago ditu Josuk laranjazkoak? Urarekin egiten direlako. Esneak kalte egiten dio.

3 - ENTZUN ONDOREN

3.1 Laranja eta limoizkoak!



Audioaren bigarren atalean testu hau agertzen da. Jarri binaka eta azpimarratu izozkien gustuak adierazteko formak.

IZOZKI-BANATZAILEA.— Izozkiak! Laranja eta limoizkoak; almendradunak, crocanti, txokolatzekoak! Ez merkeenak, bai onenak!

JUNE.— Nik izozkia erosiko dut. Zuek nahi al duzue?

AMAIA.— Nik bai, June, txokolatzekoa. Tori dirua.

JUNE.— Utziko didazu gonbidatzen, ezta? Aizu, egun on!

IZOZKI-BANATZAILEA.— Egun on, bai. Zer nahi duzue?

JUNE.— Bi izozki: bata txokolatzekoa eta bestea almendraduna.

IZOZKI-BANATZAILEA.— Mmmm... hementxe. Hartu.

JUNE.— Zenbat da?

IZOZKI-BANATZAILEA.— Lau eta berrogeita hamar, faborez. (...) Mila esker. Agur! Izozkiak! Laranja eta limoizkoak!

3.2 Adi!



Zerez eta zerezko.egituren azalpena eman.



Gauzak zerekin eginda dauden esateko, askotan zerez erabiltzen dugu:
Izozkia limoiz (limoiarekin) egiten badute, limoizkoa da.

Hau ez da gustuekin bakarrik gertatzen:
Gurpila gomaz (gomarekin) egina badago, gomazkoa da.

3.3 Zerezko?



Lotu gauza bakoitza bere materialarekin. Gero alderatu erantzunak ondokoarekin.

1	Zetazko	a	berokia
2	Larruzko	b	betaurrekoak
3	Txokolatezko	c	soinekoa
4	Plastikozko	d	atea
5	Egurrezko	e	tarta

3.4 Sagarrezko izozkia.



Izozki-dendan gustu hauetako izozkiak dituzte. Osatu taula. Gero alderatu erantzunak ondokoarekin:

	<p>1- Sagarrezko izozkia</p> <p>2-</p> <p>3-</p> <p>4-</p> <p>5-</p> <p>6-</p>
--	---

3.5 Egurrezko aulkia.

Gauzez betetako bi fitxa dituzte. Hartu bat eta eman bestea ondokoari. Bakoitzak berean 5 objekturen materialak idatzi behar ditu, esaterako: *Egurrezko...* Gero trukatu fitxa egokitu zaien berrian objektuak bilatu behar dituzte besteak hasitakoa bukatzeko: *Egurrezko aulkia*.



Bukatutakoan, talde handian azaldu lastozko, harrizko, larruzko, paperezko, plastikozko, burdinazko, metalezko, kartoizko, kristalezko, kortxozko, oihalezko, gomazko, portzelanazko... zer aurkitu duten.

Osatu zerrenda denen artean.

- *Lastozko txapela eta kartoizko kaxa aurkitu ditut nik.*
- *Guk larruzko botak...*

TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Hau bizimodua! Bazen garaia lasai egoteko!

AMAIA.— Bai, aurten uda laster iritsi da. Hau da eguzki ederra!

JUNE.— Ideia bikaina izan da hondartzara etortzea, Amaia.

AMAIA.— Iaz uda osoan ez ginen hondartzara elkarrekin etorri.

JOSU.— Ez, euri dezente egin zuen. Ez zegoen girorik hondartzarako.

AMAIA.— Ba aurten ahalik eta gehiena aprobetxatu behar dugu.

ETENA

IZOZKI-BANATZAILEA.— Izozkiak! Laranja eta limoizkoak; almendradunak, crocanti, txokolatezkoak! Ez merkeenak, bai onenak!

JUNE.— Nik izozkia erosiko dut. Zuek nahi al duzue?

AMAIA.— Nik bai, June, txokolatezkoa. Tori dirua.

JUNE.— Utziko didazu gonbidatzen, ezta? Aizu, egun on!

IZOZKI-BANATZAILEA.— Egun on, bai. Zer nahi duzue?

JUNE.— Bi izozki: bata txokolatezkoa eta bestea almendraduna.

IZOZKI-BANATZAILEA.— Mmmm... hementxe. Hartu.

JUNE.— Zenbat da?

IZOZKI-BANATZAILEA.— Lau eta berrogeita hamar, faborez. (...) Mila esker. Agur! Izozkiak! Laranja eta limoizkoak!

ETENA

JUNE.— Mmmmmm! Ze goxoa! Nahi duzu pixka bat, Josu?

JOSU.— Ez, ez zaizkit horrelakoak gustatzen.

AMAIA.— Nolakoak jaten dituzu zuk?

JOSU.— Izozki batzuk esnearekin egiten dira, eta beste batzuk urarekin. Esneak kalte egiten dit, eta nahiago ditut urarekin egiten diren izozkiak: laranja-zkoak, adibidez.

JUNE.— Saltzaileak badauzka horrelakoak.

JOSU.— Badakit, baina... Hain zaila al da ulertzea orain ez dudala izozkirik nahi?

AMAIA.— Lasai, gizona, ez du merezi horrela jartzea.

JUNE.— A ze umorea! Nik lagundu egin nahi nuen, baina...

JOSU.— Arrazoi duzue, barkatu nire zakarkeria.

JUNE.— Bai, lasai. Amaia, bazatuz itsasertzera, paseo bat ematera?

AMAIA.— Bai, goazen!

JUNE.— Segituan bueltatuko gara.

JOSU.— Ados, agur! Kaka zaharra!